

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

**Behin betiko onespena ematea zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantzaren c) epigrafea (Udal musika eskolaren zerbitzua eskaintzeagatik ordaindu beharreko tasa) aldatzeari**

Udal honek, 2021eko martxoaren 25ean egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion zerbitzu publikoak eskaintzearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren c) epigrafea (Udal musika eskolaren zerbitzua eskaintzeagatik ordaindu beharreko tasa) aldatzeari. Espediente hori jendaurrean egon den bitartean erreklamazioz aurkeztu ez denez gero, behin betiko onesten da. Beraz, Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16.4 artikuluan xedatzen duena betetzeko, argitaratu egiten da, indarrean jar dadin.

c) epigrafea. Udal musika eskolaren zerbitzua eskaintzeagatik ordaindu beharreko tasa. Aguraingo musika eskola publikoak emandako zerbitzuaz informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu barne arautegian.

#### Zerbitzuaren deskribapena

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako "Zortziko Musika Eskola" Aguraingo musika eskola publikoaren helburu nagusia da edozein adinetako pertsonen musikako prestakuntza praktikoa eskaintzea. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi zaletasun eta gaitasun berezia dutenei ikasketa profesionalerako orientabidea eta prestakuntza emango ez zaizkienik.

Ildo horretatik, irakaskuntza aukera bakarra eskaintzen da, helburu eta edukiak kontuan hartuta.

Aukera hori urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak jasotako 1., 2. eta 3. mailak egituratzen dute

1. maila edo atalase maila (4-7 urte). Ez da gaitasun mailarik izango. Lau ikasturte iraungo du.

2. maila edo hastapen maila (8 urtetik aurrera). Kontserbatorioko oinarrizko ikasketak gaintzeko behar den gaitasunaren parekoa edo baliokidea izango da ikasleek lortu beharreko gaitasuna. Sei ikasturte iraungo du.

3. maila edo finkatzekoa. Ikasleek lortu beharreko gaitasuna izango da kontserbatorioko musikako lanbide ikasketetako laugarren mailaren parekoa edo baliokidea edo, halakorik ez badago, instrumentu taldeekin edo ahots taldeekin ondo moldatzeko adina independentzia lortzea instrumentuarekin edo ahotsarekin. Sei ikasturte iraungo du.

#### Ikasgaiak eta dagozkien mailak

1. maila

Musika hizkuntza

Bakarkako kantua

Instrumentu espezialitatea: Udalak ikasturte bakoitzerako ezartzekoa: biolina, biola, biolontxelo, tronpeta, tronboia, bonbardinoa eta tuba, zeharkako txirula, klarineta, saxofoia, perkusioa, pianoa, organoa, eskusoinua, gitarra, trikitia, txistua, alboka, dultzaina, gitarra elektrikoa eta baxu elektrikoa.

Instrumentu taldea

Ahots taldea

Konboak

Harmonia modernoa

Kontserbatoriora sartzeko proba prestatzea.

Eusko Jaurlearitzako Hezkuntza Sailak baimendutako gainerako espezialitateak.

Halaber, ikasturte bakoitzerako udalak erabakitako lantegiak eman ahal izango dira.

#### Musika hizkuntza ikastaroak

Hamazortzi urtetik beherako ikasleek musika hizkuntzako lau ikastaro egingo dituzte nahitaez, salbu eta musika eskolako musika hizkuntzako lau ikastaro horien baliokide diren ezagutzak lehendik dituztela frogatzen badute.

Hamazortzi urtetik gorako ikasleek, barne arautegian jasotakoaren arabera berariazko modalitatean egongo direnek, musika hizkuntzako bi ikastaro egingo dituzte nahitaez, salbu eta musika eskolako musika hizkuntzako bi ikastaro horien baliokide diren ezagutzak egiaztatzen badituzte.

Ikasturte honetan, astean 30 minutuko eskola emango zaio ikasle bakoitzari.

#### Musika tresnak lagatzea

Musika tresna bat jotzen ikasteko egunero jo behar da, eta horretarako beharrezkoa da musika tresna eskueran izatea. Nork bere musika tresna eduki ezik, ikasleen ardura izango da praktikatzeko beste moduren bat aurkitzea.

Dena den, musika eskolaren musika tresna lagatzeak prestakuntzako lehen hiletan musika eskolan matrikulatutako ikasleen ikasketak erraztea baino ez du helburu. Epe hori igarota, ikasleak ikasten jarraitzen badu, erosi egin beharko du musika tresna.

Musika eskolak tresna jakin batzuk ditu jabetzan, eta etxean jotzeko laga ahal izango ditu, lagapen hitzarmen baten bidez, honako zehaztapen hauekin

1. Musika Eskolako Zuzendaritza Batzordeak onetsitako lagapenaren iraupena ikasturte batekoa izango da, eta beste ikasturte batez luzatzeko aukera izango da. Ikastaro horrek dagokion koadroan adierazitako urteko kuota ordaindu behar izana dakar.

2. Musika eskolako musika talde batean edo talde osagarri batean (tokiko musika banda) parte hartzen ari diren ikasleek lehentasuna izango dute musika tresnak esleitzerakoan. Musika eskolak musika tresna jakinen bat ez badauka, ez da behartuta egongo halakorik erostera. Halaber, talderen batean parte hartzen ari diren ikasleek erabiltzen dituzten eskolaren jabetzako tresnak (musika banda, Lautada Orkestra, etab.) epe luzeagorako laga ahal izango dira, baldin eta musika tresnarik badago eta Musika Eskolako Zuzendaritza Batzordeak aldeztu aurretik hala erabakitzen badu.

3. Aurreko apartatuan aipatutako ikasleei esleitu ondoren, tresna gehiago izanez gero, lehentasuna emango zaie errolatuei, eta, hala ere, gehiago badaude, zozketa bidez esleituko dira.

4. Ikaslea adingabea bada, haren guraso edo tutoreek zainduko dute onik lagatako musika tresna eta, kalterik egiten bazaio, haiek ordainduko dute konponketa. Hala ez bada, ikasleak galdu egingo du lagapen eskubidea, eta, aldi berean, behartuta egongo da konponketa ordaintzera. Konponketa udalak egingo du, eta, ondoren, gastua jasanaraziko zaio.

5. Era berean, musika tresnaren bat lagata duten ikasleen kontura izango dira mihiak eta norberak erabiltzeko gainerako material suntsigarriak erostea.

## Tresnen lagapen kuoten taula

MUSIKA TRESNAK LAGATZEA	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
	42,11 euro	42,11 euro

## Eskolen iraupena, ikasgaien arabera

## a) 1. maila edo atalase maila. 1. maila guztian talde bat egongo da adineko

4 eta 5 urtekoen taldeak. Gehieneko ikasle kopurua taldeko: 12. Astean ordu bat taldeko, 30na minutuko bi eskolatan.

6 urtekoen taldea. Gehieneko ikasle kopurua taldeko: 14. Astean ordubete eta 30 minutu taldeko, 45na minutuko bi eskolatan.

7 urtekoen taldea. Gehieneko ikasle kopurua taldeko: 14. Astean ordubete eta 30 minutu taldeko, 45na minutuko bi eskolatan. Ikasleek tailerren bidez jasoko dituzte musika eskolan ematen diren musika tresnen eskolak; horrela, informazio gehiago izango dute 2. mailan ikasi beharreko musika tresna aukeratzean.

## b) Musika hizkuntza.

Musika hizkuntzako maila guztietan (1., 2., 3. eta 4. mailak) gehienez ere hogeit hamar ikasleko taldeak egingo dira, eta gutxienez, zortzi ikaslekoak, astean gehienez ere 90 minutuko iraupenarekin. Taldeak berregituratzeko aukera egongo da, ikasle kopuruari eta eskolen iraupenari dagokienez, taldea osatzen duten ikasle kopuruak, gehiegi edo gutxiegi direlako, ikaste prozesu egokia eragozten badu. Nolanahi ere, taldeak berregituratu arren, gutxienez, lau kide izan beharko dituzte. Horrez gain, arrazoitu egin beharko da berregituraketa.

## c) Funtsezko irakaskuntza: instrumentua edo kantua.

Instrumentuaren edo bakarlari kantuen funtsezko irakaskuntzarako, gehienez ere 30 minutuko eskola emango zaio ikasle bakoitzari astean.

Eskolak, berez, talde eskolak edo partekatutakoak izango dira, gutxienez saioetatik erdiak. Hala ere, antolamendu arrazoiak direla-eta (taldea osatu ezin bada, ikasleek maila, gaitasun edo interes ezberdinak dituztelako edo ordutegian ados jartzen ez direlako), bakarkako eskolak nagusi izan daitezke.

## d) Talde irakaskuntza (instrumentu edo ahots taldeak) eta konboak.

Talde irakaskuntzako denbora lortu nahi diren helburuen arabera ezarriko da, baina, oro har, astean 30 minutu emango dira taldeko, gutxienez, eta 60 minutu taldeko, gehienez. Modu justifikatua eta zuzendaritza batzordeak proposatuta, musika eskolako lehendakariaren onespenez izanez gero, taldeko 60 minutu gehiago eman ahal izango da astero, baldin eta parte hartzaile kopurua dela-eta iraupen luzeagoa behar bada.

## e) Ikasketa osagarriak.

Irakaskuntza osagarrien denborak, puntualak eta aldi baterakoak (ikastaroak, tailerrak, etab.) edo iraunkorrak, musika eskolak ezarriko ditu, helburuen arabera.

## Ikasleen bertaratzea

Ikasle guztiek egiaztatu beharko dute ikastegian emandako denbora ondo aprobetxatzen dutela; bestela, musika eskolatik kanporatu ahal izango dituzte, barne aratuegiak jasotako bideak erabiliz.

Ikasturtean zehar, musika hizkuntzan hamar hutsegite edo gehiago edota instrumentuan edo instrumentu taldean sei hutsegite edo gehiago dituzten ikasleei baja emango zaie musika

eskolan; gaixotasunagatik edo idatziz justifikatutako beste arrazoiren batengatik egindako hutsegiteak ez dira kontuan hartuko.

#### Sartzeko baldintzak

Gutxienez lau urte izan beharko dira musika eskolan sartzeko.

Ikasle zaharrek eta berriek matrikulazio arauetan ezarritako prozedurari jarraituz bete beharko dute izena emateko eskaera.

Aurreko ikasturteetan zerbitzua emateak sortutako kuoten ordainketa egunean izan behar da.

Ikasleren batek hezkuntza behar berezirik badu, matrikulatu aurretik jakinarazi behar dio musika eskolari. Behar horien berri ematen ez bada, eskolak ez du erantzukizunik izango.

#### Eskaeren balorazioa eta sartzeko prozesua

Ikasgai bakoitzerako egongo den plaza kopurua mugatua denez, honela hautatuko dira musika eskolako ikasleak

1) Aurreko ikasturtean matrikulaturiko ikasleek lehentasuna izango dute berrien aldean. Lehentasuna izango dute, halaber, 1. mailako azken ikastaroko ikasleek (7 urte), baldin eta aukeratutako musika tresnan plaza hutsik badago hurrengo ikasturtean; kasu horretan, plaza gordeko zaie.

2) Aguraingo udalerrian erroldatuta dauden eskatzaileek lehentasuna izango dute erroldatuta ez daudenen aldean.

3) Plazak esleitzerakoan, halaber, lehentasuna izango dute aurreko ikasturtean musika hizkuntza musika tresnarik gabe ikasi duten ikasleek eta eskolako musika talderen baten jo eta musika tresnaren batean matrikularik ez dutenek.

4) Eskatzaile berrien kopurua libre dauden plazen kopurua baino handiagoa bada, zozketa hauek egingo dira lehentasun ordena ezartzeko (zozketarako arauak "ordainketa baldintzak eta matrikulatzeko arauak" ataleko 2. puntuan azaltzen dira)

a. Agurainen erroldatuta daudenen arteko zozketa.

b. Erroldatu gabekoen arteko zozketa.

#### Egutegia eta ordutegia

Musika eskolak dagokionean ezagutaraziko den eskola egutegiaren arabera ekingo dio ikasturteari.

Ikasturte hasieran onartutako egutegian ezarritako lan ordutegien arabera izango da musika eskolaren ordutegia, eta edozein arrazoi dela eta egutegi horretan aldaketa iraunkorrik edo aldian aldikorik egiten bada, zuzendaritzari eman beharko zaio horren berri.

Beste jarduera batzuen ordutegiak, dela jarduera ludikoena, kirol jarduerena edo prestakuntza jarduerena, musika eskolak eskainitako ordutegira moldatu beharko dira. Ordutegiak bat egiten badute, musika eskolak ez du zertan ikasleari beste ordutegi aukera bat eskaini.

Ekañean irakasleek ikasleei deituko diete eskola ordutegiak hautatzeko.

## Zerbitzuaren prezioa

## Tasa orokorrak

IKASGAIA	MATRIKULA	HILEKO KUOTA
1 maila	171,63 euro	38,61 euro
Musika hizkuntza	171,63 euro	38,61 euro
Musika tresna	171,63 euro	38,61 euro
Harmonia modernoa	171,63 euro	38,61 euro
Instrumentu taldea edo konboa		9,01 euro
Ahots taldea		9,01 euro
Irakaskuntza indartua	192,70 euro	47,31 euro

## Hobariak

1. Ezarritako tasetan Aguraingo Udalak ehuneko hobari bat jarriko die musika eskolan ikasturtea hasi aurreko gutxienez hiru hilabeteetan Aguraingo udalerrian erroldatuta daudenei, baldin ikasturtean zehar bertan erroldatuta jarraitzen badute. Hona hemen kolektibo horrentzako tasak

IKASGAIA	MATRIKULA			HILEKO KUOTA		
	TASA	HOBARIA	BEHIN BETIKO TASA	TASA	HOBARIA	BEHIN BETIKO TASA
1 maila	171,63	89,89	81,74	38,61	20,38	18,23
Musika hizkuntza	171,63	89,89	81,74	38,61	20,38	18,23
Musika tresna	171,63	89,89	81,74	38,61	20,38	18,23
Harmonia modernoa	171,63	89,89	81,74	38,61	20,38	18,23
Instrumentu taldea edo konboa				9,01	4,71	4,30
Ahots taldea				9,01	4,71	4,30
Irakaskuntza indartua	192,70	101,46	91,24	47,31	24,91	22,40

2. Kide guztiak erroldatuta dituzten familia unitateek, gainera, hobari hauek izango dituzte

Musika eskolan familia unitateko bi pertsona matrikulatzen badira, bigarren kidearen matrikula kuotan % 5eko beherapena egingo da.

Musika eskolan familia unitateko hiru pertsona matrikulatzen badira, hirugarren kidearen matrikula kuotan % 10eko beherapena egingo da.

Musika eskolan familia unitateko lau pertsona edo gehiago matrikulatzen badira, laugarren eta hortik aurrerako kideen matrikula kuotan % 15eko beherapena egingo da.

## Ordainketa baldintzak eta matrikula egiteko prozedura

Matrikularen prezioa, norberarena eta besterenezina, honela ordainduko da

1. Aurreko ikasturtean matrikulatutako ikasleak (1. mailako 4. ikastarokoak izan ezik)

Matrikula egiteko datak eta prozedura

1.1. Datak maiatzaren hasieran argitaratuko dira Aguraingo Udalaren web orrian eta musika eskolako iragarki taulan bertan.

Aurrematrikularen lehen zati honetan, ikasleek online bidali beharko dute aurreinskripzioa. Izena emateko eskabideak telematikoki egin beharko dira. Hala ere, musika eskolak ordutegi zehatzak jarriko ditu nahi duten eta telematikoki egin ezin duten ikasleentzat. Ikasleentzat ezarritako epean matrikula behar bezala egiten ez dutenek lekua gordeta izateko eskubidea galduko dute.

1.2. Matrikulatutako ikastaroan jarraitu nahi ez duten ikasleek idatziz jakinarazi beharko diote eskolari, mezu elektronikoa baten bidez, matrikulazio aldian, edo, bestela, ahoz jakinarazi beharko diote dagokion irakasleari.

1.3. Aurreko ikasturteko ikasleek beste irakasgairan bat egin nahi badute, hala adierazi behar dute online matrikulazio automatikoko fitxan, eta irakasgai horretarako ikasle berriztat hartuko dira.

1.4. Ondoren, Aguraingo Udalak matrikula kobratuko die bankuan helbideratuta.

2. Aurreko ikasturtean 1. mailako 4. ikastaroan matrikulatutako ikasleak

Matrikula egiteko datak eta prozedura

2.1. Datak maiatzaren hasieran argitaratuko dira Aguraingo Udalaren web orrian eta musika eskolako iragarki taulan bertan. Modu telematikoan jasoko da edo musika eskolak eskatzen duen euskarrian, eta hiru aukera adierazi beharko dira musika tresna aukeratzeko.

2.2. Behin matrikulazio epea itxita, instrumentu espezialitatearen hautaketa egiteko hurrenkera zehazteko bi letraren zozketa egingo da. Zozketak ikasturte horretako eskolako instrumentu hautaketa guztietarako eta itxaron zerrendetarako balioko du. Egun horretan bertan, musika eskolako itxarongelan, 7 urteko 1. mailako ikasleek musika tresna aukeratzeko dute, adierazitako lehentasunaren arabera.

2.3. Ondoren, Aguraingo Udalak matrikula kobratuko die bankuan helbideratuta. Egun horietan matrikula behar bezala egiten ez dutenek lekua gordeta izateko eskubidea galduko dute.

3. Ikasle berriak.

Matrikula egiteko datak eta prozedura

3.1. Datak maiatzaren hasieran argitaratuko dira Aguraingo Udalaren web orrian eta musika eskolako iragarki taulan bertan.

Aurrematrikularen lehen zati honetan, ikasleek online bidali beharko dute aurreinskripzioa. Izena emateko eskabideak telematikoan egin beharko dira. Hala ere, musika eskolak ordutegi zehatzak jarriko ditu nahi duten eta telematikoan egin ezin duten ikasleentzat. Ikasleentzat ezarritako epean matrikula behar bezala egiten ez dutenek lekua gordeta izateko eskubidea galduko dute.

3.2. Behin matrikulazio epea itxita, argitaratu egingo dira onartutako ikasleen zerrendak eta itxarote zerrendak.

3.3. Erreklamazioak egiteko aldia: Behin matrikulazio epea itxita eta argitaratuta onartuen eta baztertuen zerrendak, musika eskolak erreklamazio epeak hasiko ditu; dagokienean jakinaraziko dira.

3.4. Erreklamazioak ebatzita, Aguraingo Udalak matrikula kobratuko du bankuan helbideratuta. Egun horietan matrikula behar bezala egiten ez dutenek lekua gordeta izateko eskubidea galduko du.

#### Inprimakiak eta bete beharrekoak

Interesdunek musika eskolan bertan (Zapatari kalea 33), astelehenetik ostegunera, eskatu ahal izango dute izen ematea online egiteko eskaera orriaren esteka bidaltzeko, edo Aguraingo Udalaren web orrian jaitsi ahal izango dute ([www.agurain.eus](http://www.agurain.eus)).

Eskaera orria bete eta gero, musika eskolara bidali beharko dute online, gorago adierazitako egun eta ordutegietan.

### Matrikula edo kuotak itzultzea eta bajak

#### Itzulketak.

Matrikula egin ondoren bakarrik itzuliko da, salbu eta ikasle batek musika eskolan matrikula egin bada eta, sarbide proba gainditu ondoren, aurrez matrikulatu den ikasturtean kontserbatorio profesional batean edo goragoko maila batean onartua izan bada eta dokumentu bidez egiaztatzen bada.

Hileko kuotak oro har eta inolako hainbanaketarik gabe ezarriko dira, edozein delarik ere ikaslea musika eskolan sartu den eguna.

Irakaslearen baja dela eta, ikasleak hilabetean eskolen ehuneko 75 jasotzen ez baditu, ez zaio hil horretako kuota kobratuko.

Eskolara ez etortzeak, arrazoia edozein dela ere, baita behar bezala justifikatutako arrazoiak ere, ez du inolako murrizketa edo itzulketa eskubiderik sortuko.

#### Bajak.

Eskolan baja ematen duen ikasleak hileko kuota guztiak ordainduko ditu ikasturtea amaitu arte, salbu eta baja gaixotasunagatik edota dokumentuen bidez behar bezala justifikatzen diren arrazoi medikoengatik bada.

Ikasturteko urtariletik aurrera bajaren bat badago eta plaza hutsik geratzen bada ikasgaian, ikasle berriak ordaindu beharreko matrikularen zenbatekoa onartutako tasaren ehuneko 75 izango da. Alta egun hori baino lehenago bada, ikasle berriak matrikula eta kuota osoa ordaindu beharko du plaza bereganatzen duen egunetik bertatik.

### Eskaerak

Eskaeran daturen bat ez bada aipatzen edo gezurrezkoa bada, baliogabeturik geratuko da eskaera.

### Ordutegiak aukeratzea

Ekainaren bigarren hamabostaldian irakasleek ikasleei deituko diete ordutegiak hauta ditzaten.

Zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren epigrafe honi 2021eko maiatzaren 26an eman zitzaion behin betiko onespena.

Zerga ordenantza honen aldaketa behin betiko onesten da, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa baino ezin daiteke aurkeztu, ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, jurisdikzio hori arautzen duten arauetan ezarritako modu eta epeetan.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Agurain, 2021eko maiatzaren 31

*Alkatea*

**ERNESTO SAINZ LANCHARES**